

Sagardo eta babarrun lehiaketak egingo dira Santo Tomas azokan

Egun seinatua baino astebete lehenago antolatu ohi da Santo Tomas azoka gure artean. Honakoan, abenduaren 16arekin egokituko da Santo Tomas eguneko azoka. Herritarrek eginiko sagardoa dastatu ahal izango dugu. Gainera, bertako ekoizleek egindako babarrunak ikusteko aukera ere izango da. Dagoeneko bi lehiaketak, sagardoarena eta babarrunarena, martxan dira.

Aurten abenduaren 16an igandez ospatuko da Santo Tomaseko festa, NOAUA!k eta Sagardo Egunaren lagunak elkarrekin antolatu ohi duten azoka. Sagardo lehiaketan eta babarrun lehiaketan parte hartu nahi dutenek, ordea, abenduaren 11 baino lehen eman beharko dute izena.

Sagardo lehiaketa

Baserrian edo etxean sagardoa egiten duenak azokara ekar dezake, herritarrek proba dezaten. Nahi duenak, gainera, lehiaketan parte har dezake. Sagardotegiek ordea ezin dute lehiaketa honetan parte hartu.

Partaide bakoitzak (lehiaketan parte hartzen duenak eta ez duenak ere bai) 10 botila sagardo aurkeztu beharko ditu, eta antolatzaileek botila bakoitzeko 2 euro ordainduko dizkiote.

Babarrun lehiaketa

Partehartzaile bakoitzak kg 1 babarrun aurkeztu beharko du. Trukean, kg bakoitzeko 12 euro ordainduko zaizkio.

Babarrun lehiaketan, ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

Itxura: osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...

Kolorea: zenbat eta beltzagoa orduan



ABENDUAREN 16AN EGINO DA
SANTO TOMAS AZOKA USURBILAN.

eta hobeagoa.

Berdintasuna: tamainaz, kolorez... elkarren berdinak izatea.

Dizdira: berezko dizdira beste edozein produktuekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.

Garbitasuna: partikula arrotzik ez izatea.

Informazioa eta epeak

Sagardo zein babarrun lehiaketan izena emateko epea abenduaren 11n amaituko da. Lehiaketan aurkeztuko den babarruna edota sagardoa, ordea, beranduenik abenduaren 13rako eraman beharko da NOAUA!ko egoitzan (Bordaberri 3, beheka, kaxkoa).

Baldintzak eta gainontzeko zalantzak argitzeko, deitu NOAUA!ren bulegora 943 360 321.

Sari ederrak

Babarrun zein sagardo lehiaketan, ondorengo sariak izango dira:

Irabazlearentzat, saria: 150 eta txapela.

Bigarren geratzen denarentzat: 80 eur o.

Hirugarren saria: 50 euro.

Abenduaren 8an, odol-emaileen bazkaria

Ohikoa den bezala, abenduaren 8an Usurbilgo Odol Emaileen Elkartekoek urte bukarako bazkaria egingo dute. Zendutako odol emaeleak gogora ekarriko dituzte lehenbizi eta gero Atxega jauregian bilduko dira. Bertaratu nahi duenak, elkarteko ordezkariekin jar dadila harremanetan:

Patxi	615 760 458
Agustina	943 363 102
Kattalin	943 362 139
Maite	943 366 040

Txartelak 30 euro balio du. Bertaratu nahi duenak, azaroaren bukaerarako dei dezala izena emateko.

Jende ugari transgenikoen hitzaldian

Interesa piztu zuen Aitzaga Kultur Elkartek transgeniko-
ei buruz antolatutako hitzaldiak. Hizketan Jon Harluxet Bio-Akitaniako presidentea eta Enrike Gisasola biologoa eta artzaina aritu ziren.



teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 • ASTEASU
☎ 943 69 68 52 • 620 800 186

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO